

MIKEL LABOA:

«Komunikatzeko
bestelako bideak
interesatzen zaizkit»

Bihar, igandea, Egunkarian

EGUNKARIA 25-2-96

Datorren larunbatean bertan izango dugu taula gainean Mikel Laboa. Bost urteren ondotik berriro Donostian kantatuko du, Victoria Eugenia antzokian. Kantu zahar

eta berriak; tradizionalak, *Lekeitioak* eta poema musikatuak. Euskal musikaririk berezienaren galbahetik igarotako mundu adierazgarria

MIKEL LABOA

K A N T A R I A

agertuko du. Berrogeita bost urte inguru daratza kantuan eta hasieratik izan du musikaren definizio arruntetik haratago joateko gogo, «jendearekin komunikatzeko bestelako bideak»

topatzeko nahia. Bide horretan euskal musikari zaharrenen eta gazteenen zubi bilakatu da oharkabeen.

«Oso intuitiboki egiten dut lan»


Mikel Laboaren musika bere barne munduaren isla da. Berezkoa du bere musika, 'Lekeitioak' horren lekuko. Hala ere bere musikarekiko urruntasun puntu bat gordetzea gustatzen zaio, hainbeste maite duen antzerkiko jokalaria bat bailitzan. Baina aldi berean emozionatzeko gogo xumea du. Hizkuntza konbentzionaletik kanpoko esparruetan arakatzen da barruak eskatzen diona, ahotsaren, orruen edo gorputzaren hizkuntzetan barrena abiátzea. Badela beste zerbait, komunikatzeko bestelako biderik inon, hitzak soberan egon daitezkeela, psikiatra lanetan aritu izan denean paziente izan dituen haurrek erakutsi dioten moduan.

■ Zure jardunaren oinarri garrantzitsu bat euskal kantagintzari dagokiona da. Eta hor Iparraldeak, Zuberoak, pisu handia du. Badira Iparraldeko kantutegiarekiko atxikimendu handia duten beste musikari asko.

Bai hala da. Zuberoa eta bere inguruan badago halako mito baten antzekoa eta guretzat beti izan da erreferentzia puntu bat. Nik ikasi nituen lehen euskal kantak Iparraldekoak ziren. Oso aberatsa da bertako herri kantutegia eta gainera oraindik bizi da. Zuberoa da horren adibide, izugarri ederra dira bertako kantuak bai melodien aldetik eta bai hitzen aldetik... Ez dut uste Berterretxan kanthoria bezain adierazgarria eta hain ederra den kanturik dagoenik Hegoaldeko kantutegian bi familia banderizoren borrokak adierazteko. Hegoaldean ere izan badira baina ez haren parekorik. Antzera gertatzen da literatura aldetik ere. Gu hasi ginenean Iparraldea aurkitu zuten bat izan zen guretzat. Mugaz bi aldekoen arteko harremanak orduan hobeak ziren. Orain nabaritzen dut atzera egin dugula harreman horretan. Berriz hasi behárko dugu loturak estutzen.

■ Kantu tradizionaletatik nola egiten duzu salto hain berezi diren *Lekeitioetara*?

Nola egiten dudana salto? Egia esan ezin dut zehatz adierazi, ez dakit ongi. Badut gogoan detaile bat, nola hasi nintzen entsegubatean inprobisatzen eta neure kasara kantatzen. Irudi hori daukat. Eta ondoren sortzen da *Baga-biga-higa* lehen *Lekeitioa*. Lekuonaren liburutik hartu nuen testua eta musikatzan hasita *Lekeitioen* munduan sartzen. 1977/78



ANDER GILLENEA

edo 1972an inguruan, *Gernika* (*Lekeitio 4*) bukatu eta pixka bat geroago, Roy Hart ezagutu nuen; gorputzaren espresioa baino areago ahotsarena menderatzen zuen gizona eta horrek eragin handia izan zuen nigan.

■ Kantu libreak dira oso, dirudienez legerik ezagutzen ez dutenak, zuk zeuk jartzen ez diezun ez bada...

Bai, nire posibilitateen barruan askatasunarekin egiten ditut, hori da pixka bat oinarria. Ez dira beste kantuak bezala, hitz edo poema bati lotuak. Nire ustez askatasunarekin eginak dira, ez dakit besteek nola ikusiko duten.

■ Beldurrik izan al zenuen lehen *Lekeitioa* jendaurrean kantatzerakoan?

Bai, *Baga-biga-higa*-rekin bai. Gero ere bai egia esan, beti izan dut, baina lehenengo harekin bereziki. Avilako unibertsitatean —Benitok (Lertxundi) eta biok emaniko kontzertuan— euskal ikasleen aurrean kantatu nuen lehen aldiz eta jendeak ondo hartu zuen. Ondoren Bakion kantatu nuen eta nire apuroak izan nituen *xirixiti, mirixiti...* kantatu eta jendea barrez sumatzen nuen. Eta batzuetan ere, *Gernika* kantatzeko momentuan, txistuak entzun ditut, baina aurrera egiten dut, estuasunarekin haina aurrera. Niri gustatzen zaizkit pieza horiek, nahiko kutunak ditut eta besteek ere

«Konturatzen nintzen hizkuntza kobentzionaletik aparte badaudela komunikatzeko beste bide batzuk eta hori da interesatzen zaidana»

«Gustatzen zait kantuak ez gehiegi apaintzea. Ez naiz gustura sentitzen gauza oso erromantikoeekin»

«Haur autistekin eta atzeratuekin egin dut lan eta baliteke horren islaren bat egotea nire kanta batzuetan»

«Gazteekin oso gustura egoten naiz. Uste dut aitona bezala ikusten nautela. Niretzako oso interesgarria da»

gustatuko zaizkiela pentsatzen dut. Agian kantu horiengatik dut arraro fama.

■ Zein erreferentzia zenituen *Lekeitioak* egiteko? Inoiz ikusia zenuen antzeko zerbait, atzerrian agian?

Ez, beno egia da garai hartan Iruñean topaketa batzuk egin zirela musika garaikidearen inguruan eta jende asko etorri zen atzerriatik eta han zegoen azken *Lekeitioa* eskaini diodan John Cage. Baina hori 1972. inguruan izan zen eta nik banituen hiru *Lekeitio* eginak (*Baga-biga-higa*, *Dialektikaren laudoria* eta *Gernika*). Dena dela John Cage eta Roy Hart erreferentzia izan dira niretzat. Askotan esan dut, Picasoren *Guernica*, *Gernika* kanta egiteko inportantea izan zela. Horretaz gain musika mota asko entzun dut. Esate baterako, 1964. inguruan, ezkondu ginenean, Bach eta Vivaldiren musika asko entzuten genuen eta behin, norbaitek, *Baga-biga-higa*-k Vivaldiren musikarekin zerikusirik bazuela esan zidan... Auskalo! gero, musika garaikidea ere entzun dut, Stravinski dela, Schoenberg dela, Ligeti dela...

■ Garaikidea eta berria izango zen zerbait egitea al zen zure asmoa?

Ez, ez konszienteki behinik behin. Konturatzen nintzen hizkuntza kobentzionaletik aparte badaudela komunikatzeko beste bide batzuk, bai gorputzarekin,

bai eskuiekin... zein hizkuntzatan mintzatzen garen eskuak eta guzti desberdin mugitzen ditugu, orruen espresio eta indarra... Hor badira beste adierazpide batzuk, konbentzionaletik kanpo eta hori da interesatzen zaidana. Baina ez dut konszienteki egiten, ez dut pentsatzen «zerbait berria, apurtzailea egin behar dut», ez, esplikatzaioak normalean egin eta gero etortzen dira.

■ Teoriak beti ondoren beraz?

Bai eta gainera uste dut gu ez garelako inor hori interpretatzeko. Interpretazioak kanpotik —kanta entzuten duenaren aldetik— etorri behar du.

■ Poesiarekin ere lotura estua duzu, beti musikatu izan dituzu poesiak, Arestirenak, Artzerenak, Sarrionandiarenak, Atxagarenak... Nola aukeratzan dituzu?

Oro har olerkia irakurtzen dut, nobelak edo narrazioak baino askoz gehiago. Sarriren azkenarekin ari naiz orain. Aukeratu? Ez dakit, gustatzen zaizu olerki bat baina horrek ez du esan nahi kantu bat egingo duzunik... Oso intuitiboa izaten da prozesu hori, batere zuzena ez. Nire kasuan, gustatzen zaizu eta bueltak eta bueltak eman eta ez da kanturik ateratzen. Beste batzuetan, berriz, bai, ateratzen dira. Batzuetan alderantziz ere egin dut, lehenengo musika eta gero hitzak bilatu *Aintzinako bihotz* kantuan adibidez, berdin *Izarren* hautsa-n.

Normalki, baina, olerkiaren gainean egiten dut lan. Poema batzuk etorri egiten zaizkit eta besteak topatu egiten ditut. Artzeren Txoria txori adibidez taberna bateko serbiletan inprimatuta zegoela ekarri zidan Marisolek eta gustatu eta kantua osatu nuen. Beti izan naiz pixka bat motela kantuak egiten, luzaro joaten zait kantuak egiten. Gero, gainera, ez dut inoiz kantu bat bukatu eta gero aldatzen, ez dut gustuko. Kantua bukatu arte ez du inork entzuten eta bukatutakoan horrela geratzen da.

■ **Raimonek esan izan du zure musika minimala dela.**

Batzuetan entzuten dudanean minimal musika pixka bat roiloa iruditzen zait, *new age* eta horrelakoak. Hiru akorde behin eta berriz errepikatzen osatzen dituzte kantu asko. Agian ni minimal izango naiz baina uste dut gutxienez emozioa sortu, sortu behar dela.

■ **Dena den zure kantuak biluziak dira sarritan...**

Gustatzen zait hori, ez pasatzea, ez gehiegi apaintzea. Teatroan Bertolt Brechtek esaten zuen distantzia bat gorde behar zela. Ez naiz gustura sentitzen oso gauza erromantikoeekin, ez kantatzeko moduan ez musika egiteko moduan. Agian nire kanta batzuk hotzak dira alde horretatik, distantek... Baina bestalde poetikotasunari garrantzi handia ematen diot.

■ **Ironia ere erabiltzen duzu.**

Kantu batzuetan bai, ageri da. Askatuko zaitudan zai bazuade adibidez oso ironikoa da. Bai, gustatzen zait. Komikiak eta pailazoak adibidez izugarri gustatzen zaizkit. Zineman, badakizu, Charlot, Keaton, Cantinflas eta gaur egun Woody Allen. Bestalde, Charli Rivel edo Colombayoni pailazoekin primeran pasatu dut: izugarri maite ditut; baina antzerkia ere... Gogoan dut gazte ginela Jarrai taldeak Living Theatre taldea ekarri zuela eta oso interesgarria izan zen. Gero, orain dela urte gutxi, Gasteizen ikusi nuen berriro eta ez zitzaidan gustatu. Tadeusz Kantor poloniarra, berriz, asko gustatu zitzaidan. Oso-oso ona iruditu zitzaidan. Antzerkiari buruz mintzatzen ari garela, hogeita hamar urte baino gehiago izango dira,

Aia herrian Dürrenmatt eta Ionescoren obra bana euskaraz eman zutela Jarrai taldekoek, baserritarren aurrean. Ausarta izan zen ekitaldia. Salto handia zen Aia batean hori ematea...

■ **Nola erantzun zuen jendeak?**

Baserritar asko zegoen eta egon ziren entzuten eta ikusten eta ondo. Ez dakit zer pentsatuko zuten, zoratuta ote ginen edo, baina garrantzitsua da atzean ez geratzea, zer pentsatuko dutenaren beldur. Igoal egin zuten espero ez genuen interpretazioren bat.

■ **Joxean Artzek eragin handia izan du zuegan?**

Bai, lotura handia izan dugu. Bera ere experimentalaren aldeko izan da. Ez Dok Amairun berehala jarri ginen hartu-emanetan, ondo ulertzen genuen elkar. Asko hitz egin genuen elkarrekin. Ez dok Amairu antolatzeke. Taldeari izena Jorgek (Oteizak) jarri zion eta bere ideiak eta *Quousque tandem* bere liburuak eragin handia izan zuen guregan.

■ **Ez Dok Amairu desagertu eta gero ere berarekin jarraitu zenuen.**


Bai Ikimilikiliklik muntaia antolatu genuen Joxeanek, Jexux Artzek, ~~Jesús Mari Zabala~~ eta laurok. Herri ugaritan ibili ginen batetik bestera.

■ **Musika eta irudiekin osaturiko ikuskari esperimentalak ziren. Garai hartan errazagoa zen gauza berriztatzea egitea?**

Gauza asko hasi ginen entzuten eta ikusten garai hartan. Frankismoa zabaltzen hasten da eta sumatzen da mugimendua. Bai, baginen pixka bat mugitzen ginenak... Joxean Londresera joaten zen eta ekartzen zituen liburuak eta diskoak. Gu oso irekiak ginen berria zen guztiaren gose eta kanpoan zer egiten zen jakiteko desiratzen egoten ginen. Eta sentimendu horretatik hasten gara gu gauza berriak edo izan daitezkeenak egiten.

■ **Politikaren zama astuna ere bizi izan duzue...**

Nik uste dut artista pertsona den heinean guztiok bezala politikaren munduan dagoela sartuta. Baina aldi berean, nire iritzia da apur bat aparte egon behar duela, gure funtzioak edo emaitzak denentzat izan behar direlako.



ANDER GILLENEA

■ **Nola lotu izan dituzu zure lanbidea, haur psikiatrarena eta kantagintza? Inoiz elkar topo egiten al dute?**

Izan dudana lanarengatik aukera izan dut bi alorrak jorratzeko, psikiatria eta musikagintza bere aldetik. Psikiatrok nahiko

ero fama dugu agian ikusten ditugunengatik; eroen artean bizi bazara konturatzen zara badela beste mundu bat, desberdina... mentalitate hori duzu eta horrek nabarmendu behar du nonbaitetik eta agian zerikusirik badauka gero nire kantekin. Haur autistekin eta atzeratuekin egin dut lan eta izan daiteke horren islada den bat egotea nire kanta batzuetan, *Komunikazioa-inkomunikazioa* abestian adibidez. Ez da konszientetik egiten dudana gauza baina uste dut badagoela harreman bat.

■ **Zein musika entzuten duzu?**

Beti entzun dut denetik, klasikoak, jazza: Coltrane edo Eric Dolphy... Semeak, Izarok, etxean rocka jartzen du eta gustura entzuten dut; musika garaikidea, pop musika... Lehen disko dezentente erosten nituen, orain gehiago Marisolek erosten ditu.

■ **Kontzertuetara ere joaten zara.**

Bai, lehen ere gehiago. Eta asko entzun dut, nola klasikoa, nola AC / DC edota Lou Reed, Genesis, Bob Dylan, Miles Davis, Pere Ubu, David Thomas... Orain dela gutxi egon nintzen Montoia Andoaingo gaztetxean ikusten. Han BAPekin jo zuen eta oso interesantea izan zen kontzertua. Atzo gauean ere Iñaki Salvador, Jean Marie Ekai, Gonzalo Tejada eta Victor Celada entzuten egon nintzen.

Entzun, entzuten ditut gauza desberdinak.

■ **Zer moduz moldatzen zara euskal musikari gazteekin?**

Oso gustura egoten naiz. Uste dut ikusten nautela aitona bezala. Niretzako oso interesgarria da. Beti ikasten dut asko. Oro har ondo moldatzen naiz guztiekin eta batzuen laguna ere banaiz. Eta laguna izateak esan nahi du euren proiektuak ezagutu, grabatzen ari direna ezagutu, entzun, iritziak trukatu... Hor aurrean egotea gazteekin oso interesgarria da niretzako.

■ **Gazteek dituzten mirespenaren adierazgarri da zure kantuen bertsioekin osaturiko Txeroke diskoa. Zer nolako esperientzia izan zen?**

Oso polita. Diskoaren aurkezpenean egon nintzen baina penatan geratu nintzen ez baikenuen egin bazkaririk elkarrekin. Uste dut egin beharko dugula.

■ **Eta gainera jende gazte asko joaten da zure kontzertuetara.**

Nik uste dut urteak aurrera egin ahala jendea etxean geratzen dela telebistaren aurrean. Nire kontzertuetara eta beste kontzertuetara doana jende gaztea da, eta normala da, beraiek baitute egarri handiena gauza desberdinak entzuteko.

Lorea Agirre

DONOSTIA

«Ez da sobera ona nostalgia sentitzea»

60ko hamarkadan euskal kantagintzak —kulturako beste esparru batzuetan bezala— eztanda egin zuen. Mugimendu aurrerakoi haren itzala orain arte luzatu da eta garai hartako zenbait kantari erreferentzia nagusi dira gaur egun ere, baita musikari gazteenentzat ere. Izan direnagatik eta oraindik ere eskaintzen dutenagatik daude indarrean. Mikel Laboa da kantari horien eredu. Berrogeita bost urte inguru igaro dira gaztetxo zela gitarra esku artean hartu zuenetik. Gerorako etorri zen euskal kantari eta artisten iraultza. «Ez genuen ongi ezagutzen gure herria, ez eta gure

kantagintza ere. Guretzat aurkikuntza handia izan zen. Mundu bat irekitzen zitzaigun gure begien aurrean». Yupanqui, Violeta Parra, Brassens kantatzen zituen orduan Laboak. «O Pello, Pello eta Haika Mutil kantuak ezagutu nitueanean pentsatu nuen nire artean 'zer egiten dut nik Yupanqui kantatzen jakinda inoiz ez dudala berak bezala egingo eta etxean altxor hau edukita?». Horiak nire maisu izpiritualak ziren, baina nire bidea hemen neukan». Bartzelonan medikuntza ikasketak egiten bertako mugimendua ezagutu zuen, Raimon, Pi de la Serra,

Llach eta besteak. «Jada euskaraz kantatzen hasia nintzen, eta ezagutu nuenean katalanen mugimendua gurean antzeko zerbait egiteko aukera ikusi nuen. Banekien bazirela beste batzuk nire gisara, eta hor hasi zen Ez Dok Amairu sortzen». Beste horiek Lurdes Iriondo eta Benito Lertxundi ziren. Etorkizunean esperantzak jarrita bizi ei ziren eta maila batean bete direla iritzi dio. «Alde batetik, bai, aurrerapen handia eman da euskara aldetik eta kultura alorrean orokorrean. Arazoa da gaur egun gutxi hitz egiten dela kalean euskaraz, baina egia da

aurrera egin dela. Garai hartan ezin zen pentsatu unibertsitatea euskaraz izango genuenik. Eta musika aldetik berdin. Garai hartan apenas zen musikaririk eta gaur egun bai musikari eta bai talde oso desberdinak eta onak sortu dira. Nik uste dut gaurko gazteek ere izango dutela etorkizunean esperantzarik. Egia da guk jada gauza asko ikusi ditugula baina horrek ez du esan nahi esperantza ez dugunik. Nostalgia? «Agian orduan gazte ginela, baina ez dut sentitzen horrelakorik; gainera, uste dut ez dela sobera ona, uste dut aurrera egin behar dela alde guztietatik.»

* behin joan zen liburuak eta diskak erostea